



URUMEA

Ibaia auzolanean garbitzeko deia, herritarrei

Abañotik hasiko dira, larunbatean, 10:00etatik aurrera eta bertan parte hartzeko izena eta NAN zenbakia bidali behar dira 'jalkikulturelkarrea@gmail.com' helbidera.

URUMEA garbitzeko auzolana antolatu da larunbat honetan, ekainaren 1ean. *Gozatu, zaindu, elkarbanatu!* goiburupean Abañon izango da garbiketara 10:00etatik aurrera. Zati horretan ariko dira lanean eta joateko asmoa dutenek izena eta NAN zenbakia bidali behar dute *jalkikulturelkarrea@gmail.com* helbidera, maiatzaren 30a baino lehen Ondoren, Aranon bazkalduko dute eta jolasak antolatu dira. /2



Proba ikusgarria Hernanin

Denontzat taldeak, 'Denontzat Race' obstakulu proba ikusgarria antolatu zuen Floridan larunbatean. Ia 300 parte hartzaile bildu ziren. /8

HERNANI

Boleibol taldea, txapeldunorde

Euskadiko Jokoetan Hernaniko neska infantilak txapeldunorde geratu dira Gipuzkoa ordezkatuz, Sestaoko La Benedicta kiroldegian. Arabari irabazi eta gero Bizkaiaren aurka, Sestao bertako taldeak ordezkatzen zuten, galdu egin zuten 2-0. Iaz baino koxka bat gorago geratu da aurtengoan Hernani. /7

HERNANI

Kirol barneratzaile postuak, Tilosetan

Hernani errugbi taldea jardunaldi barneratzaileak ari da antolatzen eta bihar, 18:00etan, Tilosetan, kirol inklusiboko postu desberdinak egongo dira. Ekainaren 8an antolatu dute Inklusibo Txapelketa Euskal Herria eta estatuko talde desberdinekin. /2

ASTIGARRAGA-HERNANI

Herriartekoan, biak aurrera

Asteburu honetan ere garaipena lortuta, aurrera egiten ari dira Hernani eta Astigarraga, Herriartekoan. Eskuz, final laurdenetan dira biak, dagoeneko. Palan, Hernani ari da aurrera egiten. /7

GAUR KRONIKAN

Urumea /2

Goiz Eguzki, laburrak...

Ikasleen txokoa /I-IV

DBH 1-2

Kirolak /7-8

Boleibola, arrauna, errugbia, kirol tabla...

ESKERRIK ASKO
zuen konfiantza eman diguzuen guztioi!

elkarrekin
PODEMOS.

Elkarrekin Podemos - Orain Hernani

equo ezker
anitza

■ URUMEA AUZOLANA

Urumea garbitzeko auzolana antolatu da larunbatean

Abañotik hasiko dira ekainaren 1ean, 10:00etatik aurrera, eta izena eman behar da maiatzaren 30a baino lehenago. Izena eta NAN zenbakia bidali behar dira 'jalkikulturelkar-tea@gmail.com' helbide elektronikora.

GOZATU, zaindu, elkarbanatu! goiburuean Urumea ibaia garbitzeko auzolana deitu da, larunbatean, ekainaren 1erako. Abañon izango da garbiketara-

ko aukeratutako zatia. Bertan elkartuko dira 10:00etan eta lanean aritu ondoren, Aranon elkarrekin bazkalduko dute (bakoitzak etxetik ekarrita) eta

talde jolasak antolatu dira. Joateko asmoa dutenek izena eta NAN zenbakia bidali beharko ditu jalkikulturelkar-tea@gmail.com maiatzaren 30a

baino lehen.

Beharrezko materiala antolakuntzak jarriko du. Oinetako eroak eramatea gomendatzen da.

Auzolana egin aurretik eta ondoren argakia ateratzea da asmoa #trashtagurumea hashtagarekin elkarbanatzeko sare sozialetan. ■

■ HERNANI JARDUNALDI BARNERATZAILEAK

Jolasean aritzeko kirol inklusiboak, bihar Tilosetan

Kirol barneratzailean dabilzan zenbait taldek postu desberdinak jarriko dituzte bihar 18:00etatik aurrera.

HERNANI errugbi taldea jardunaldi barneratzaileak antolatzen ari da eta bihar, maiatzaren 29an, Ezkiaga pasealekuan kirol inklusiboen sentsibilizazio saioa izango da. Arratsaldeko 18:00etan hasita, Gipuzkoa mailan kirol barneratzailean dabilzan zenbait kirol talde etorriko dira eta postu ezberdinak jarriko dituzte herritar guztiek elkarren artean jolasteko aukera izan dezaten.

Ekainaren 8an, Inklusibo Txapelketa Euskal Herria eta estatuko taldeekin
Ekainaren 8an III. Inklusibo Txapelketa izango da Landaren. Aurten euskal taldeez gain (Getxo errugbi taldea, Gaztedi Rugby taldea eta Unibersitario Bilbao) estatuko zenbait taldeen bisita edukiko dute: Almeriako URA CLAN, Toledoko Quijote rugby club, Las Rozaseko Industria-les eta Cullera CLAN Espurna.

Ikastetxeetan ibili dira solasaldiak ematen

Aurtengoan ere Hernani rugbi elkarteak inklusiorako urratsak ematen egitasmoarekin aurrera jarraitzen dute. Aurten zenbait ikastetxetan ibili dira hainbat ikasleekin inklusioaren inguruan solasean. Urrietako salesiarretan edo eta Easo Politeknikoan, gizarteak historian zehar eman dien erantzuna aztertu dute. ■

■ HERNANI ABESBATZA



Goiz Eguzki abesbatzak emanaldia eskaini zuen Milagrosan.

Goiz Eguzkiren kontzertuak

Goiz Eguzki abesbatza Milagrosan aritu zen kontzertuan orain hamar egun. Aurrena gizonen korua aritu zen, eta segidan, emakumeena. Batera aritu ziren emanaldia borobiltzeko eta larunbatean milagrosatik kalera irtengo dira. Erdialdeko kaleak beraien ahotsekin goxatuko dituzte. ■

■ HERNANI SAN JOANAK

Kantaitarako entsaio irekia gaur, Biterin

San Joanetako Kantaitarako entsaioa egingo dute gaur, 20:30etatik 21:00etara, Biterin. Atera nahi duen oro joan daiteke. ■

■ ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Ate irekiak, seigarren mailakoentzat

Gaur ate irekiak egongo dira seigarren mailakoentzat Gaztelekuan, 18:00etatik 20:00etara, bertako zerbitzuak ezagutzera emateko. Bihar gurasoekin bilera egongo da 18:00etan euskeraz eta 19:00etan gaztelaniaz. ■

■ HERNANI GIPIZKOA ARGITU

Argindarra aurrezteko tailerra, Goiz Eguzkin

Bigarren saioa egingo dute gaur, energiaren kontsumoa murrizten eta eraginkortasuna haunditzen laguntzeko. 18:00etan izango da Goiz Eguzkin. ■

■ HERNANI ERAKUSKETA

'Bi txori buru' ikusgai, Kide tabernan

Kide tabernan, *Bi txori buru* Marrak kolezioari dagokiona ostiralera arte dago ikusgai hilabete eta erdi egon eta gero. Marrazkiak dira. ■

■ HERNANI IPUIN KONTAKETA

Lur Kortaren ipuin kontaketa, gaur

Umeei zuzendutako bi ipuin kontaketa saio egingo dira gaur Biterin, Lur Kortak gidatuta. Aurreneko saioa 17:30etan egingo da, 3-4 urte artekoentzat, eta bigarrena, 5-7 urte artekoentzat, 18:00etan. ■

■ HERNANI KONTZERTUA

Elkartruke kontzertua, bihar Biterin

Musika eskolako elkartruke kontzertua egongo da bihar, 19:00etan, Biterin, Altsasuko musika eta dantza eskolarekin batera. ■

■ ASTIGARRAGA ZILEGI ESKOLAK

Mekanika ikastaroa egongo da bihar AEKn

Zilegi eskolen barruan mekanika ikastaroa antolatu du bihar. AEKn bertan emango dira 19:00etan. Izenematea aurretik kultur etxean edo zilegieskola@aek.eus helbidean eman behar da. ■

www.kimerafisioterapia.com

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

Hitzordua hartzeko
orain ere whatsapp zerbitzua



638421060
9:15 - 18:00



Hernani: Antziola, 16 -Tel./Fax 943 556 427

Astigarraga: Nabarra Oñatz, 9 -Tel./Fax 943 331 720

Donostia: Zabaleta, 61 -Tel./Fax 943 321 586

HERNANI BHI
Institutua
DBH 1-2

/ 2019-05-28 asteartea /



ERREPORTAJEA
Bartzelona
// 2



ERREPORTAJEA
**Bihotzean
dugun
bidaia**
// 3

KRITIKA
**Ezekiel liburuaren
ohar-kritikoa**
// 2

POESIA
Olerkiak
// 4

■ ERREPORTAJEA

Bartzelona

Maiatzaren 6tik 10era Bartzelonarako ikas-bidaia egin dugu eta oraingoz, ikastolako bidairik gustukoena izan da, izan ere, Bartzelonara lagunekin joateko aukera paregabea da. Nire lagunei gehien gustatu zaiena Port Aventura izan da, baina harrigarriena da niri ere gehien gustatu zaidan gauza izan dela, atrakzioek beldurra ematen didate eta.

Astelehena, 2019ko maiatzaren 6a

Astelehenean, 07:45ean, haurtzaindegiaren parean geratu ginen 08:00etan autobusa hartzeko, baina 08:10ak arte ez ginen atera. 10:45ak aldera iritsi ginen lehenengo geldialdira, Tuterara. Han hogeita hamar minutu eduki genituen hamaiketakoan jan eta denbora librerako. Hurrengo geldiduna Lleidan izan zen bazkaltzeko, han denbora

batekin komunera joan nintzen, baina ez genituen aurkitzen komun publikoak, beraz, mugikorreko Google Maps aplikazioan komun publikoak bilatu eta hurbilenera joan ginen, 9 minututara. Komun hori itxita zegoen eta goiko tabernan galdetu genuen ea ahal genuen komunera sartu eta ezetz esan ziguten eta gorago zeuden komun batzuetara joan ginen, baina bidean adineko gizon bati

gindoazela, museo batera sartzen saiatu ginen, baina itxita zegoen, eta kalean behera joan ahala txosna moduko taberna bateko komunean bukatu genuen. Aldapan behera jarraitu eta autobusetara iritsi ginen, baina lagunak bilatu behar genituen eta izugarritzko buelta eman ondoren aurkitu genituen eta denak autobusera joan ginen garaiz.

Calafellen hotelean gelek arazo bat eduki genuen, eta ondorioz, ordubete egon ginen harreran itxoiten. Txartela eman zigutenean, gelara igo ginen. 20:30ean afaltzera joan ginen eta afaldu ostean, hondartzara joan ginen beste hotelekoekin egoteko. 23:00etan gelan egon behar genuen mugikorrak irakasleei emateko.

Astearte, 2019ko maiatzaren 7a

Asteartean, 07:15ean esnatu eta dutxatu egin nintzen, 08:15ean behean egoteko. Gosaria oso goxo zegoen eta palmera txikitxo batzuk lapurtu genituen bazkaltzeko. Autobusa hartu eta Bartzelonara abiatu ginen. Bartzelonara iristean, Katalunia plazan utzi zigun autobusak. Lehenengo, Modernismoari buruzko ibilbidea egin genuen eta bertako jendeari galdezka ibili ginen Sagrada Familiara iristeko, han A, B, C eta D gelak elkartu eta Katalunia plazara buelta-tu ginen bazkaltzera.

Bazkaldu ondoren, beste bi ibilbideak egin genituen: Ramblak eta Gotikoa. Gotikoa egin genuen lehenik eta izugarritzko buelta eman genuen galdu egin ginelako, baina azkenean irakasleak ikusi eta Els Cuatre Gats non zegoen esan ziguten, baina oraindik Ramblak ibilbidea egin behar genuen eta ira-

kasleek fitxa betetzea ez zela beharrezkoa esan ziguten. Orduan Rambletatik buelta bat ematea erabaki genuen, izozki bat jan eta berriro Katalunia plazatik Calafellera bueltatzeko.

Iristean, igerilekuan bainatu ginen baina ura hain hotza zegoen salto egin eta kanpora atera ginela. 20:30ean afaltzera jaitsi eta afaldu ostean hon-

joan ginen eta bidean argazkiak atera genituen han zeuden pertsonaiekin. Jarraian, Dragon Khanera joan ginen eta hiru txanda egon nintzen lagunei itxoiten. Zain nengoela, irakasleekin topatu eta denak batera Gran Cañon, Tutuki Splash eta Furius Bacon ibili ginen. 18:00ak aldera hartu genuen autobusa eta 19:00etan iritsi



dartzara joan ginen. 00:30ak aldera lo geunden.

Asteazkena, 2019ko maiatzaren 8a

Denak pozik esnatu ginen, azkar jaitsi ginen gosaltzera eta 09:00etan autobusa hartu eta 10:00etarako Port Aventura sarreran ginen. Sartu eta Furius Bacon ibili ginen, azkar-azkarrak da eta pixka bat gaizki pasanuen. Hurrengo atrakzioetan, Shanbala, Dragon Khan eta Huracan Condorren, ez nintzen ibili beldurra nuelako, baina ondoren El Diablon ibili nintzen. Ondoren, bazkaltzera joan ginen denak batera eta bazkaldu ondoren berriro Furius Bacon ibili ginen, baina oraingoan ia botaka egin nuen bazkal ostean zelako. Azken horretan ibili eta gero, Stampidara

ginen hotelera. Betiko orduan afaldu eta betiko orduan oheratu ginen.

Osteguna, 2019ko maiatzaren 9a.

09:00etan gosalduta eta buelta bat ematera joan ginen beste hotelekoekin, hondartzako paseoa egin eta hotel azpira joan ginen wifiarekin pelikulak deskargatzeko, bidaian pelikulak ikusi ahal izateko. Hotelean bazkaldu eta autobusa 14:00etan hartu genuen eta joaterakoa egin genituen geldialdi berdina egin genituen. 21:00ak aldera iritsi ginen Hernanira. ■

Egilea:

Narrea Saez de Heredia



gehiago eduki genuen, ordu bat.

Bazkaldu ondoren autobusera igo eta Montjuic-era bidean jarri ginen. Montjuic-en, lagun

galdetu genion eta goiko komun hori itxita zegoela esan zigun, beraz, kale batetik behera joan ginen. Kalean behera

■ KRITIKA

Ezekiel liburuaren ohar-kritikoa

Osoro J.: EZEKIEL, *Bihotz taupadak*, Elkarlanean S.L., Donostia, 2009.

Laguntasuna eta maitasuna batu ditu Jasonek liburu honetan, hau da, gaztarroan kontuan hartzen ditugun gai nagusiak azaltzen ditu, besteak beste, amodiozko sentimenduak, neska-mutilen arteko muxuak... Ezekiel protagonista delarik. Liburuan zehar lagunaren artean arazoak sortzen dira, baina azkenean konpondu egingo dira.

Esango nuke liburu hau intriga handikoa dela, gai asko sartzen dira eta. Jasonek hizke-

ra informala erabili du, hau da, lagunartean erabiltzen duguna. Lexikoarekin berdina egin du, izan ere, irakurteraza egiten du, halere, liburuan sartu egin behar zara xehetasunak argi izateko.

Protagonistaren garrantzia ukaezina da, hots, oso aktiboa da. Hura da ekintza guztien sorburu eta bere elkarrizketak umoretsuak dira, irakurleen irribarrea loratzeko.

Esaldiak biziak eta intrigazkoak dira, ondorioz, kontakizu-

naren erritmoa hobetzen dute. Batez ere, sakeleko sms-en modua, oso erreala da, izan ere, gaur egungo gazteen sms-en ia berdina dira, hau da, hitz oso bat idatzi beharrean laburtu egiten da, adibidez, "Kx, Ezekiel. Zrkn hitz egin bhr dt"; batzuetan asko pentsatu arren zaila egiten da laburtutako hitzak osatzea, hau da, lehenengo ikuspegian jakitea zaila egin zait.

Liburuan berdintasunaren eta errespetuaren kontzeptua

aurkitzen da. Hori dela eta, liburuak erakusten du homosexualei, bisexualei... errespetua eduki behar zaiela, nahiz eta zuri hasieran arraroa iruditu, pertsonaia homosexual bat aurkezten digulako, normaltasun osoz.

Maitasuna, sexua, laguntasuna... Gaztea bazara edo horrela sentitzen bazara, bete-beteen asmatuko duzu liburuak irakurrita. ■

Egileak: Naia Barrenetxea



■ ERREPORTAJEA

Bihotzean dugun bidaia

Bigarren hiruhileko honetan gure ametsetako bidaia prestatzen aritu gara, ordu asko egon gara BARTZELONA gaiaz hitz egiten. Klase askotan aritu gara bidaia ikaragarria prestatzen: Tutoretzan, Gizarte, Mate... Bidaia usaindu ahala gauzak erosten hasi ginen, maleta aurkitzen eta abar... Bestalde, urduritasunak nabaritzen ziren, beste herri handi batera joango ginelako... Azkenean, autobusaren aurrean nengoen Bartzelonara abiatzeko eta lau egun zoragarri eta amets egiteko modukoak pasatzeko. **BIDAIA HASTERA DOA!**

NERBIO ASKOKO EGUNA Astelehena 6a

Bidaia hasteko, goiz-goiz jaiki nintzen urduritasun handia nuelako, dutxatu eta pixka bat lasaitu egin nintzen. Baina nire nerbioek oraindik bertan segitzen zuten, tripak soinu egiten zidalako. Orduan, gosalduegin nuen, gosaria indartsua izan zen ondoren autobusean ez mareatzeko 7:30ean Naroarekin gelditu nintzen elkarrekin joateko autobusera. Autobusera joatean Naroa eta ni ez ginen isildu urduri ginelako. Autobusera iritsi eta 8:00etan atera ginen BARTZELONARA BIDEAN!

bat topatzen da eta gaztelu hori 1751an eraiki zen Juan Martin Cermeñoren eskutik.

Horrez gain, beste hainbat gauza ikusi genituen. Ondoren, seiak aldera autobusera bueltatu ginen eta berriro martxan jarri ginen gure bidaiaren azken txanpa egiteko.

Ordu bat pasa ondoren Calafellera iritsi ginen eta bertan maletak hartu eta gure hoteletarantz joan ginen (Miramar, Solimar...)

Hotelera iristerakoan gelak eman eta ikustera joan ginen, gelak handiak eta txukunak ziren. Ondoren denbora libre

emateko eta esnatzeko.

Ondoren, jantzi eta gosaltzera jaitsi ginen. Gosalduegin gure bazkariak prestatu genituen, motxilak hartu eta autobusera abiatu ginen, poz-pozik eta kantari gure eguna Bartzelonan pasatzeko.

Autobusean denbora bat pasa ondoren azkenean iritsi ginen Bartzelonara! Bartzelonan talde bakoitzari txosten bat eman ziguten eta han abiatu ginen, esploratzaile moduan lekuak aurkitzen eta galderak egiten. Baina momentu batzuetan "Hi, selfie" programan ginela ematen zuten, zeren eraikin garrantzitsuetan selfie bat atera behar genuen taldekideekin.

Bertan eraikin desberdinak ikusi genituen adibidez: katedrala, supermerkatua...

Ibilaldi luze bat egin ondoren bazkaltzen gelditu ginen, Plaza Katalunian, a ze eromena izan zen hura bazkaltzeko, uso guztiak gainean genituen eta horrek erotu egiten zigun.

Jarraian beste ibilbide bat egin genuen: ibilaldi modernista. Ibilaldian eraikuntza bereziak ikusi genituen baina harri-garriena "SAGRADA FAMILIA" izan zen. Sagrada Familiak zuten altura ikaragarria zen, gainera oraindik bukatu gabe zegoen, obretan zegoen.

Ibilaldia bukatzeko kantari bueltatu ginen kalez kale. Jarraian autobusera iritsi ginen eta Calafellera abiatu ginen, iristerakoan igerilekura joan ginen, igerilekuko ura hotz-hotza zegoen.

Bainua hartu ondoren afaltzera joan ginen.

Afaria bukatu eta hondartzara joan ginen, beste hoteletakoekin egotera.

Eguna amaitzeko, hamaiketara ohera joan ginen eta lo hartu genuen, gure amets goxekin.

BUELTA ETA BUELTA Asteazkena 8

Goizean goiz jaiki ginenean,



Irudi honetan Bartzelonako Udaletxea ikusten da.

jantzi eta korrika jaitsi ginen gosaltzera, gose asko genuelako. Jaitziera horrek lasterketa ematen zuen. Indartsu gosalduegin ondoren, autobusera abiatu ginen, "PORTAVENTURARA" joateko. Minutu batzuk pasa ondoren, azkenean iritsi ginen PortAventurara.

PortAventura atrakzio parke bat da, gune desberdinekin osatua, Polinesia, Txina... Parke hau 2002an ireki zen eta fama asko eduki zuen.

Sarrerak emandakoan korrika sartu ginen ikasle guztiak.

Atrakzio askotan ibili ginen eta goiza segituan pasa zitzaidan. Horrez gain, zorabiatu egin nintzen, hainbeste buelta eta bueltarekin.

Ordu batak aldera atrakzio parketik atera ginen bazkaltzera eta aparkalekuan bazkaldu genuen. Bazkaltzen amaitzen sartzan joan ginen arratsaldea aprobetxatzeko gogoekin.

Arratsaldean ere atrakzio askotan ibili ginen esate baterako: Furius Baco, Dragon Khan, Shamballa...

Busti ere egin nintzen, uretako atrakzioetan. Orduak pasa ahala kanporatzen joan ginen eta bukatzeko argazki bat atera genuen, denak batera.

Behean ikusten da atera genuen argazkia:



PortAventuratik gose askorekin etorri ginen, orduan afaltzera joan ginen. Afaldu ondoren hotelean gelditu ginen telebista pixka bat ikusten. Jarraian Mara irakaslea etorri zen mugikorren bila. Handik gutxira denak lokartuta geratu ginen, leher eginda ginelako.

BUELTA ASPERGARRIA Osteguna 9

Azken egunean jaiki ginenean, triste geunden baina maletak

txukuntzen eta egiten hasi ginen, bitartean musika entzunez. Handik minutu gutxira gosaltzera jaitsi ginen. Hamaikak aldera maletak prest utzi eta Calafell ikustera joan ginen, Calafelleko paseoa ibiliz. Ibili bitartean dendetan sartzen ginen, kuxkuxeatzera.

Bertan ibili ginen bazkaltzeko ordua iritsi arte, buelta eta buelta.

Calafell Kataluniako udalerria da, Tarragonako probintzian kokatua. Gutxi gora-behera 24.265 biztanle ditu.

Ordu bata aldera bazkaltzera joan ginen eta hura izan zen gure azkeneko otordua bertan. Orduan bazkaria ondo aprobetxatu genuen. Jarraian autobusera joan ginen gure maleten soinuekin. Bestalde, Calafell agurtzen joan ginen. Ondoren Hernanirantz abiatu ginen, aurpegi tristeekin.

Autobusean denbora bat pasa ondoren Lleidan gelditu ginen. Berehala atera ginen bertatik Hernanira berandu ez iristeko.

IRITSI GINEN HERNANIRA!

Azkenean iritsi ginen berriro konturatu gabe, bertan familiarrak zain genituen poz-pozik eta gu aldiz nekatu aurpegiekin.

Bidaia aurretik lan asko eta



Irudi honetan Bartzelonako katedrala ikusten da.

Bi orduro geldialdia egiten genuen; lehenengo geldialdia Tuteran izan zen eta bertan hamaiketako egin genuen. Gero bidaiari jarraitu genuen eta bidaiari hainbat pelikula ikusi genituen, adibidez: "Campeones", "Mi mejor verano"...

Beste bi ordu pasa ondoren beste geldialdi bat egin genuen eta bertan bazkaldu egin genuen, geldialdia Lleidan izan zen. Bazkaldu ondoren, ibilbide aspergarria segitu genuen, oso aspergarria zen, kanpoko bistak ez zirelako aldatzen.

Bidaiari jarraitu genuen Montjuic-era iritsi arte. Montjuic-era iritsi ginenean gure lagunekin ingurua ezagutu genuen. Bertan izugarrizko olinpiar estadioa zegoen, bertan gure olinpiadak egiteko modukoa.

"MONTJUIC" 173 metro dituen mendia da, bertan gaztelu

eduki genuen, baina denbora gutxi zegoen, orduan gelan egotea erabaki genuen, eguna nola joan zitzaigun kontatuz. Zortziak eta laurdenetan afaltzera jaitsi ginen. Afaldu ondoren denbora libre eduki genuen, hamaikak arte, orduan Calafell herrian ibili ginen buelta eta buelta.

Ordua iritsi ahala hoteletarantz abiatu ginen eta bertara iritsi ginenean mugikorren lapurreta eduki genuen (irakasleek mugikorrak kendu zizkiguten).

MUGIKORREN LAPURRETA!

Eguna bukatzeko ohera joan eta goxo-goxo lo hartu genuen.

IBILI ETA IBILI Asteartea 7

Eguna ondo hasteko dutxa hartu nuen eta jarraian Mara etorri zen atea jotzen, mugikorrak

Egilea: Intza Pagola 2.E

■ OLERKIAK

1. Tristura: Garrasi mingarritz betetako izozki tarrina bat. Maitasuna: lore alaiez betetako soroa.

2. Txokolateak txurroak bezala erakartzen nauzu zuk.

3. Nire ustez urdina gozamenaren kolorea da asko disfrutatzen dudalako ur azpian. Niretzat beltza oportunitate berrien kolorea da, dena beltza dagoenean beti dagoelako beste aukera bat.

Egilea:
Elaia Eizmendi Hernandez

1. Olatuek surflariak bezala erakartzen nauzu zuk.

2. Nik bihotzean familia daukat. Triste nagoenean muxuak eta besarkadak ematen dizkidate. Mua mua...

Egilea:
Izaro Gereño

1. Nire bihotzak abestiak dauzka, instrumentuak, dantzak.

Nire bihotzean zelai bat dago, baloi bat, kono bat.

Musika eta errugbiak osatzen dute nire bihotza.

2. Haserrea: gorrotoz eta enbidiaz osatutako zulo beltza. Alaitasuna: Irribarrez osatutako unibertsoa.

3. Nik gaua eta trena lotu ditut; izan ere, bidaiariekin gauz bidaia-dezakete nahi izanez gero. Nik gaua eta trenari itxaropena gehitu diet: gauz bidaiatzera-koan, trenean leku berri bat ezagutzera goazenean, polita eta interesgarria izateko itxaropena izaten dugu.

Egilea:
Alazne Larraza

1. Niri olatuen soinua Mexikoko itsasoa gogoratzen dit, oporretan familiarekin egon nintzenekoa. Soinu hau entzuteak lasaitasuna ekartzen dit.

2. Nik sirena bat daukat bihotzean, azkar igeri egiten duenean urduri nabilela esan nahi du.

3. Urreak lapurra bezala erakartzen nauzu zuk.

4. Nik farola eta gaua lotu ditut, gauean farolak argia ematen baitu.

Nik farola, gaua eta eguzkia lotu ditut: Pinotxoaren ipuinean putzu handi batean erori zelako. Balearen ahoan erori zen eta ahoak tunel itxura zuen.

Egilea:
Olaia Arsuaga

1. Miresmena heroiarekin elkartu dit, txikitan heroiak mundua salbatzen zutela pentsatzen nuelako.

2. Letxugak karakola bezala erakartzen nauzu zuk.

3. Aita, ama eta babesa elkartu ditut, gurasoek gaizki nagoenean babestu egiten nautelako.

Egilea:
Amane Santa Cruz

1. Nire ustez beltza iluntasunaren kolorea da, gaua beltza delako. Niretzat laranja larritasunaren kolorea da, semaforoaren erdian dagoelako.

2. Nik gaztaina eta kaktusa elkartu ditut, gaztainaren morkotsak kaktusak bezala ziztatzen baitu.

3. Ekaitza daukat bihotzean, plis plis euria, zizt zizt tximista.

Haserre nago.

4. Nik gorrotoa etsaiarekin lotu dut, izan ere, Athletikeko zaleak gorrotatzen ditut

Egilea:
Manex Goñi

Eguna da, gaua da, ez zara zu, ez ni, amodioa da.

Egilea:
Enara Ortega

Nik maleta hartu eta gauza itxaropentsuez bete nuen, bidaia polita izan zedin eta gauza berri asko ezagutu nitzan.

Egilea:
Nahia Hernandez

Muxu gozoak muxu garratzak denetik du maitasunak Baina gaur tori loreak eta utzi penak.

Egilea:
Nahia Hernandez

IKASLEEN TXOKOA DBH 1 - 2



■ HERNANI-ASTIGARRAGA PELOTA

Hernanik eta Astigarragak asteburu borobila, Herriartekoan

Eskuz, aurrera egin dute biek, final zortzirenetan irabazita; eta palaz, irabazi egin zuen Hernanik, final laurdenetako bueltakoan.

ASTEURU borobila izan da joan dena, pelotari hernaniar eta astigarrarentzat, Herriarteko Txapelketan. Izan ere, txapelketan jarraitzen duten hiru taldeek lortu dute garaipena.

Horrela, eskuzko lehian, aurrera egin dute Astigarragak eta Hernanik, eta final laurdenetara sailkatu dira.

Astigarrarek, Oiartzunera jo zuten ostiralean, 2-leko abantaila defendatuz; eta beste bi garaipen lortu zituzten. Eñaut eta Ekain Lizeaga anaiek 22-12 irabazi zuten aurrena; Manex Aldalur eta Aimar Mujika jubentilek porrota jaso zuten (5-22); baina pasea ziurtatu zuten Harri Loidi eta Jokin Santxez nagusiek, 22-15 irabazita. Orain, Zestoaren kontra ariko dira, final laurdenetan. Joanekoa, ostiral honetan Txomifñenen.

Berdintsu aritu zen Hernani ere, Adunaren kontra. Kanpoan 2-1 nagusitu ondoren, primeran eutsi zion errenta horri, etxean, joan den ostiralean. Partidu haundia jokatu, 22-7 nagusitu ziren Xabier Apaolaza eta Unai Etxarri kadeteak; eta kanporaketa erabakita utzi zuten Xabier Salaberria eta Oihan Zugasti jubentilek, 22-16 irabazita, aurreko asteko porrotari buelta eman. Eta ezer jokatu gabe, galdu egin zuten Iñigo Urkizuk eta Ekaitz Insaustik, nagusie-

Final laurdenetan, Zestoa du kontrario Astigarragak, eta Azpeitia Hernanik, ostiralean hasita.

tan (17-22); ez zuen bere ohiko mailan jokatu, bikote hernaniarrak. Final laurdenetan, Azpeitiaren kontra ariko da Hernani, eta ostiralean jokatu du joanekoa, han. Pelota Elkarteak autobusa antolatuko du, pelotariak animatzera joateko, Atsegindegitik 20:30etan abiatuta.

Andoainen aurreneko pausoa palistek, semifinaletara
Eta esku pelotariak aste honetan hasiko badituzte final laurdenak, dagoeneko ekin diote fase horri, palistek; baita ondo ekin ere. Andoainen jokatu zuen Hernanik, joanekoa, bertako taldearen kontra; eta hiru partiduetatik, bi irabazi zituzten hernaniarrek.

Buruz buru, Lujanbiok 20-12 irabazi zuen, frontoi osoan. Bina, 20-8 nagusitu ziren Manterola eta Zubimendi. Eta bana, 12-20 galdu zuen Urreagak. Aurreneko pausoa eman dute, beraz, semifinaletara sailkatzeko.

Oiartzungo Txapelketaren finalean, Garazi Urdangarin
Txapelketa gehiagotan ere aritu dira palista hernaniarrak, joan den asteburuan. Oiartzungo Txapelketako semifinalla jokatu zuen Garazi Urdangarinek larunbatean, Nahia Eizmendi aiarrekin; eta irabazi egin zuten, Murua eta Galdosen kontra (25-14). Hori horrela, datorren igandeko finalean ariko dira, txapelaren bila.

Irabazi egin zuten, baita ere, Euskadiko Jokoezko partidua, Maddi Iriondok, Joana Tolaretxipik eta Alaitz Barrenetxeak. Bizkaiari nagusitu zitzaizkion larunbatean, Sestaon.

Eta garaipena lortu zuten, Amaia Irazustabarrenak eta Ariane Arrietak ere, Estatuko Trinkete Txapelketan, Oberena taldearen kontra. Aste honetan bukatuko dute ligaxka, eta hurrengo fasera sailkatuko dira hernaniarrak, partidu guztiak irabazi baitituzte.

Aldiz, porrota jaso zuten Garazi Urdangarinek eta Ekhiñe Balerdik, Euskal Herriko jubentile mailako trinketekoan, Adurtzaren kontra (20-30). Eta porrota jaso zuen Maider Huizik ere, Paleta Larruzko Txapelketaren hirugarren jardunaldian. Mairarekin batera, 2-3 galdu zuen Deban, Ibañez eta Etxaniz bikotearen aurrean. ■

■ HERNANI BOLEIBOLA



Neska infantilen taldea, txapeldunordearen koparekin.

Hernani txapeldunorde, Euskadiko Jokoezkoan

Arabari irabazi zioten neska infantilek, baina ezin izan zuten bizkaitarren kontra.

EUSKADIKO Eskolarteko Jokoezkoan aritu zen larunbatean, Hernaniko neska infantilen boleibol taldea, Gipuzkoako liga irabazi ondoren. Eta Euskadiko txapeldunorde izan da.

Sestaoko La Benedicta kiroldegian elkartuta, Arabako txapeldunen kontra aritu ziren aurrena, eta aurreneko puntuetatik izan zen nagusi Hernani. 25-15 eskuratu zuen aurreneko jokoan, eta 25-17 bigarrena, partidua irabazteko.

Ondoren, Bizkaiako txapeldunaren kontra jokatu zuen; Sestaoko taldearen kontra, hain justu. Eta aurreneko puntuetan aurre egin zieten arren, bere maila haundia erakutsi zuen talde bizkaitarrak gero, eta bi jokoak irabazi zituen.

Hori horrela, Euskadiko bigarren bukatu dute hernaniarrek, iaz baino koxka bat gorago, eta hori zuten helburu.

Neska jubentilek ezin, Gipuzkoako finalean

Hernaniko neska jubentilek, berriz, Gipuzkoako Ligako finalak jokatu zituzten igandean, baina ezin izan zuten dominarik ekarri. Lizardi Zarautzen kontra jokatu zuten semifinalla, eta 2-2 berdindu ondoren, joko erabakigarrian akats asko egin zituzten hernaniarrek, 14-16 galtzeko, oso partidu luzean.

Eta segidan, 3-1 galdu zuten 3garren posturako lehian, Arantzazuko Amaren kontra. Ez ziren ondo aritu hernaniarrak; akaso, nekeak eraginda. ■

ERRUGBIA		
EUROPEAN TROPHY TS	Narvskaia Zestava-Hernani	10-19
EUROPEAN TROPHY TS	Hernani-Baltrex	12-21
EUROPEAN TROPHY TS	Hernani-Grasshopper	28-5
EUROPEAN TROPHY TS	Hernani-Södertälje	21-0
INFANTILAK 5-14	Hernani-Gartedi-Uni. Bilbao	38-12
FUTBOLA		
MUT. OHOREZKO ERREG.	Amaikak Bat-Hernani	1-4
NSK. GORENGA	Añorga-Hernani	2-0
1GO. ERREG.	Amara Berri-Mundarro	3-1
NSK. KAD. 1GO. MAILA	Mundarro-Luberri	3-0
BOLEIBOLA		
NSK. JUB. LIGA FINALAK	Hernani-Lizardi Zarautz	2-3
NSK. JUB. LIGA 3-4 POSTUAK	Hernani-Arantzazuko Ama	1-3

NSK. INF. EUSKAL JOKOAK	Hernani-Arabako Txapelduna	2-0
NSK. INF. EUSKAL JOKOAK	Hernani-Bizkaiko Txapelduna	0-2
PALA		
NSK. JUB. TRINKETA	Hernani-Adurtza	20-30
NSK. JUBENTILAK	Garazi Urdangarin-Nahia Eizmendi/Murua-Galdos	25-14
NSK. INFANTILAK	Isondo-Tolaretxipi-Barrenebea/Bizkaia	25-18
ERREMONTEA		
1GO. PARTIDUA	Goikoetxea V/Arruarte	16-5
2. PARTIDUA	Urriza-Garces/Ansa II-Etxeberria III	40-31
PROMOZIO TXAPELKETA	Azpiroz-Zubiri/Aldabe-Lamailaga	31-35
4. PARTIDUA	Juanenea-Labakai/Segurola-Aizpuru III	17-30
ESKU PELOTA		
Hernani		
TRINKETA	Pagola-Arizmendi/Esteribar	0-2

TRINKETA	Txumulueta/Arizmendi-Arizmendi	40-8
NAGUSIAK	Arkoitia/Josu Altuna	22-8
NAGUSIAK	Urkizu-Zugasti/Aduna	17-22
JUBENTILAK	Xabier Salaberria/Bergara	22-5
JUBENTILAK	Salaberria-Zugasti/Aduna	22-16
KADETEAK	Apaolaza-Etxarri/Aduna	
Txapelketa pribatuak		
TXAPELKETA PRIVATUA	Oiartzabal-Lasa/Pagazpe	7-22
TXAPELKETA PRIVATUA	Salaberria-Agme/Tolosa	14-22
TXAPELKETA PRIVATUA	Ioritz Arrieta-Sarasa/E. Labaka-Eizegi	22-11
TXAPELKETA PRIVATUA	Jon Jara-Eskuzza/Aranbarri-Goikoetxea	22-16
TXAPELKETA PRIVATUA	Manex Martin/Egoitz Eizegi	18-13
TXAPELKETA PRIVATUA	Unax Manterola/Unax Arabaolaza	18-4

GAUR Aldaketa gutxi izango dira gaur; eta udazken giroarekin segiko dugu, Zerua lainotuta egongo da, egun osoan zehar, eta euria egingo du. Haizea zakar ibiliko da, ipar-mendebaldetik, eta temperatura pixka bat jaitsiko da, hotz sentazioa ere haundituz: **Min.11° / Max.15°**

BIHAR Aldaketa dator biharko, eta hobera egingo du eguraldiak. Goizean giro tristea izango da oraindik, eta euri pixka bat egin dezake. Baina gero, atertu eta argizera egingo du, ostare zabalekin. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, baina ahulago. **Min.10° / Max.17°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI DENONTZAT



Denontzat Race probako hainbat saridun, Denontzat Hernaniko egoitza.

Asier Landart eta Irati Beorlegi garaile, Hernaniko proban

Eguraldi txarra egin arren, 300 parte-hartzaile izan ziren larunbatean. Florida auzoan barrena osatu zuten ibilbidea.

DENONTZAT taldeak antolatuta, Denontzat Race obstakulu proba izan zen larunbat arratsaldean Hernanin. Ia 300 parte-hartzaile izan ziren Florida auzoan barrena egin zuten proban.

Elite mailako gizon eta emakumeen sailkapen orokorrean Asier Landart izan zen aurrenekoa; Ekain Nogueira, bigarrena; eta hirugarren postua lortu zuen Jon Fernandezek.

Emakumeen artean, Irati Beorlegi izan zen azkarrena; Nadia Zernott, bigarrena; eta Eider Alonso, aldiz, hirugarren iritsi zen.

Taldea ere lehiatu ziren,

Bereziki eskerrak eman dizkie boluntario, laguntzaile eta bazkideei.

Denontzat Pro Team izan zen onena; ondoren, bigarren sailkatu zen Promesas Denontzat taldea, eta hirugarren, Denontzat Leyendas.

Proba izan bitartean, ateri Eguraldi txarra izango zela uste bazuten ere, probarako atertu egin zuten, eta ederki gozatu ahal izan zuten parte-hartzaileek zirkuitu dibertigarri bezain zorrotzarekin. Indarra, abilezia, esekitze-teknikak, erresistentzia, punteria... uztartu behar izan zituzten partaideek.

Korrikalari adituak eta hasiberriak izan ziren, eta haiekin gozatu ederra hartu ahal izan zuten bertaratutakoek.

Ikustera joan zirenei, parte-hartu zutenei eta bereziki, boluntario, laguntzaile zein bazkideei eskerrak eman dizkie Denontzatek: «haiek gabe proba egitea ezinezkoa litzateke».

Errugbi elkarteari ere «eskerrik» eman dizkiete, «hasierako ibilaldiaren alternatiba gisa, bere instalakuntzak erabiltzen uzteagatik». **II**

HERNANI ERRUGBIA

Hernani laugarren, Europako Txapelketan

Finaletik pauso bakarrera geratu ondoren, galdu egin zuen 3garren posturako lehia.

MAILA ederrean aritu da Hernani, zazpiko errugbiko Europako Txapelketan; eta laugarren postua lortuta bueltatu da.

Larunbatean, ligaxkako hiru partidua irabazi zituzten trikoloreek: 29-7 Dukla talde txekiarrari, 12-7 VVA Moscow errusiarrari, eta 21-0 Södertälje suediarri. Horrela, final laurdenetara pasea lortu zuten.

Ondo hasi zuten igandea

ere, Grashopper suitzarrari 28-5 irabazita eta semifinaletara sailkatuta. Baina horretan, gehiago izan zen Baltrex lituaniarra (12-21), eta finaletik kanpo geratu zen Hernani. Oraindik domina lortzeko aukera zuten, hala ere; baina hirugarren posturako lehian, Narvskaya Zastava errusiarrak nagusitu zituzten (10-19). Horrela, laugarren izan ziren azkenean. **II**

HERNANI ARRAUNA

Llaut Txapelketan, B finaleko bigarren

Ez zuen final nagusira sailkatzea lortu Hernanik, Espainiako Txapelketan.

ESPAINIAKO Llaut Txapelketan aritu da Hernani Arraun Elkarte, asteburuan, neska absolutuen taldearekin. Eta final nagusitik kanpo geratu arren, pozik bueltatu dira, Valentziako Benidormetik.

Bikain ekin zioten txapelketari, hernaniarrek, larunbatean. Aurreneko kanporaketan,

bere txanda irabazi zuten, nagusitasunez. Baina igandeko semifinalean, sei segundugatik egin zien ihes, final nagusirako txartelak.

Hori horrela, B finala lehiatu zuten, kontsolaziokoa, eta bigarren bukatu zuten, irabazleek baino lau segundu ekxak beranduago bukatuta. **II**

IRAGARKI MERKEAK

Bikote gaztea 2-3 gelako pisua alokatuko luke Hernani edo inguruan. Epe luzerako.
Deitu: 688 774 068

Lokala alokairuan, 1go pisuan. 17m karratukoa, eta komunarekin. Ofizina baterako egokia.
Deitu: 943 27 78 51

LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilero eta formazioa enpresaren kontu. **Bidali cv** info@landanet.net edo deitu 943318606.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)


Gerizpe
Kafetegia-Okindegia
682 156 795
Kale nagusia 5, Astigarraga


Valella
okindegia
Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

MENDIKUZE
OKINDEGIA, S.L.

Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA
Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua